ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2022ko uztailaren 1a, ostirala • 76 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

139/2022 Foru Agindua, ekainaren 16koa. Hasierako onespena ematea Aguraingo udalerriko lurzoru urbanizaezinean txakurtegi bat eraikitzeko proiektuaren interes publikoaren adierazpenaren espedienteari

José Ignacio Dávila Baltasarrek udal lizentzia eskatu dio Aguraingo Udalari, udalerri horretako lurzoru urbanizaezinean, bere jabetzako 1 poligonoko 602 lurzatian, txakurtegi bat eraikitzeko.

Aguraingo Udalak espedientea bidali eta proiektuaren interes publikoaren adierazpena izapidetzeko eskatu du, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betez.

Espedientean jasota dago proiektuaren xedea banakako hamabi txakurtegi atxiki instalatzea dela. Txakurtegien alde itxiak eta biltegia hormigoi aurrefabrikatuzko blokez eraiki nahi dira, eta estalkia barneko isolamendua duen xafla lakatuzkoa izango da. Aurrealdean, berriz, zutoinez eta sarez egindako metalezko itxitura bat egongo da. Dena hormigoizko zola baten gainean eraikitzea da asmoa, hustubideetarantz maldan, lurrazpiko saneamenduko hodien bidez lotuta, putzu septiko estanko bateraino.

Zerbitzu honek informazioa osatzeko eskatu ondoren, sustatzaileak adierazi du txakurtegiaren instalazioak 120 metro koadroko azalera hartuko duela, eta lurzatiaren gainerakoa baratza jartzeko eta zuhaitzak landatzeko erabiliko dela.

Udal arkitektoak egindako txostenean jasotzen denez, D-30 Trantsizioko Landa Paisaiako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zona gisa kalifikatutako lurzoru urbanizaezinean dago lurzatia. Udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean jasotakoarekin bat etorriz, txakurtegi bat jartzea erabilera onargarritzat jotzen da, lurzoru urbanizaezinean onar daitezkeen landa erabileren barruan dagoelako.

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera, eta sail honen egitura organikoa eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuak 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatzea babesten duen landa egoeran dagoen lurzoruan, salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jarduera eta erabilera batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira.

Bat etorriz 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, "lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legeriak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaratutako zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hogei egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren".

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Aztertutako kasuan, hasierako onespena izapide bat baino ez da, hots, prozedura bultzatzen duen eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen izapidea baino ez, eta ez du xedatzen, inondik inora, behin betiko onespenerako hartu beharreko erabakirik.

Ondorioz, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau:

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hasierako onespena ematea Aguraingo udalerriko lurzoru urbanizaezinean, 1 poligonoko 602 lurzatian, José Ignacio Dávila Baltasarrek sustatuta, txakurtegi bat eraikitzeko proiektuaren interes publikoaren adierazpenaren espedienteari.

Bigarrena. Espedientea jendaurrean jartzea, hogei egunez, foru agindu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan, nahi duen orok egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango ditu. Interesdunek Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuan azter dezakete espedientea.

Hirugarrena. Foru agindu honek izapide egintza ez kualifikatuaren izaera du, eta beronen aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 16a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2022.07.01 06:18:13 Z